

Banku Mundialak argitaratutako txosten baten arabera, hurrengo 10 urtetan mila milioi pertsona berri sartuko dira lan merkatuan; aldi berean, beste ikerketa batzuek 2030 horizontean bi mila milioi lanposturen galera izango dela adierazten dute, eta 2050 urtera begira jartzen bagara, munduko populazioaren ia %50a langabezi egoeran egongo dela aurreikusten duten beste azterketa batzuk aurki ditzakegu (iturria: The Millennium Project).

Bestetik, Banku Mundialak dioten moduan, nahiz eta munduko pobrezia maila jaisten ari den, irabazien arteko distantzia, gero eta handiagoa da. Intermon Oxfam eta Credit Suisse-ek kaleratutako datu ezberdinek hori adierazten dute; egun munduko biztanleriaren %1a munduko aberastasunaren %46aren jabe da, munduko biztanleriaren %50a, munduko aberastasunaren %0,7aren jabe den bitartean.

Beraz, datu hauek eta enpleguaren etorkizuneko bilakaera ikusita, egoera nahiko kezagarria dela esan dezakegu. Baina zein da teknologiaren papera bilakaera honetan? Lanpostu duin gehiago sortzen lagundu dezake, edo aldiz, lanpostu gehiago suntsitzen?

Galdera honen erantzuna ez da argia; Pew Research Center-ek egindako ikerketa baten arabera, adituen artean eztabaida eta banaketa handia dagoela ikus daiteke, aditu parte-hartzaileen erdiak 2025 urtera begira teknologiaren eragin negatiboa azpimarratzen baitzuen, eta beste erdiak berriz, bere eragin positiboa.

Alde batetik, teknologiak enpleguan izan dezakeen inpaktu negatiboa erakusten duten adibide ezberdinak aurkitu ditzakegu:

- Gidari gabeko taxi, autobus edo eta kamioen zabaltzeak, lanpostu asko galdu araziko ditu?
- Japonian garatzen ari diren AI robotek, 3. adineko atentzio zerbitzuan dabiltzan langileak ordezkatzeko al ditu?
- Google-en burmuin artifizialak zenbat lanpostu ordezkatzeko ditu?
- 3-D eta 4-D inprentak, atzerriko merkataritza murriztuko al du? Edo aldiz, tokiko ekonomietan lanpostu gehiago sortu?

Beste alde batetik aldiz, teknologiak positiboki lagundu dezake lanpostu berrien sorreran:

- Teknologiak auto-enplegua bultzatu dezake, internet bitartez merkatu globalak asko gerturatzeko baitira.
- Teknologiaren bitartez negozio berriak edo start-up-ak sortzeko oztopoen murrizketak enplegua areagotu dezake.
- Erretiratutako pertsonen merkatu berriak aurkitu ahalko dituzte, teknologiaren bitartez lanean jarraituz.
- Bio-teknologi ekonomiak oraindik existitzen ez diren lanpostuak sortu ahalko ditu.

Eztabaida honen aurrean, problematikaren deskribapenaren inguruan mundu mailan hausnarketa ugari egin direla dirudi; baina, hausnarketa bera egin al da arazo horri aurre egiteko garatu beharreko tokiko estrategia eta estrategia globalei dagokienez?

The Millennium Project prospektiba sareak honi erantzun bat emateko helburuarekin, mundu mailako ikerketa bat jarriko du martxan; ikerketa honek, arlo hauetako adituen parte-hartzea sustatuz, teknologiaren eraginez sortutako epe luzeko langabezi global eta estrukturala nola

landu beharko litzatekeen aztertzea izango du helburu; hau da, zer nolako estrategiak garatu beharko liratekeen zentratuaz.

Honela, badirudi ezinbestekoa dela lana, ekonomia eta hezkuntza arloetan gertatzen ari diren oinarrizko aldaketei buruzko epe luzerako hausnarketa estrategiko berritzailea orain eta gaur garatzen hastea, etorkizunean aurreikusten diren langabezi egoera masibo eta globalak eta irabazi diferentziak saihestu ahal izateko. Baina prest ahal gaude horretarako? Prest al daude gobernu eta administrazioak horretarako?

*Oihana Hernáez Lizarazu (Prospektiker-eko aholkularia. The Millennium Project Estatuko Nodoa)*

## Zabaldu:

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)

